

SIDRERÍAS-SAGARDOTEGIAK / TURISMOA-TURISMO

Ekainetik aurrera Petritegi sagardotegiak bisita gidatuak eskainiko ditu.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 30/05/2012 - 9:07

Sin comentarios



Ekainetik aurrera **Astigarragako** Petritegi sagardotegiak **bisita gidatu** ezberdinak eskainiko dizkie bisitariari hauek Petritegi baserriko sagardoaren elaborazio prozesua, familiako historia eta sagardoaren kultura ezagutzeko helburuz.

Bisitariak bisitaldi osoaz gozatzeko aukera izango du **sagastia**, **polinizazioa**, **prentsak** eta **hartzidura prozesua** ezagutzeko eta honetaz gain, XVIII. mendetik hasi eta gaur egunerarteko Petritegi sagardotegiko sagardo naturalaren bilakaera azaltzen duen **ikusentzunezkoaz** gozatzeko aukera izango du bisitariak.

Bisitaren amaieran **sagardoa** eta **pintxo** batzuk dastatuko dira.

Petritegi sagardotegiak eskainiko dituen **bisita motak** honakoak izango dira:

Oinarrizko Petritegi" Bisita Guidatua

Sagardoaren mundura gerturatu, bisita gidatu oso batetn bitartez, hain ezagunak ez diren Petritegi sagardotegiko lekuak bisitatuz: Sagastia, tolaareak eta Kupeletegiak. Gainera, XVIII mendetik gaur egun arte, sagardogintzak Petritegin izandako bilakaera erakusten digun ikusentzunezko dokumentu batez gozatzeko aukera izango da.

Bisita ostean, sagardoa eta "txorixo" egosi pintxo bat dastatuko ditugu.

Banakakoak: 8€

7 urtetik 12 urtera: 3€

Asteleneetik larunbatera: 10h-12h-16.30h-18.30h

Igandea: 10h-12h

7 urte bainan gutxiagoko haurrak dohainik.

"Gourmet Petritegi" Bisita

Gida aditu baten laguntzaz, sagardoaren elaborazioan eta katan murgilduko gara bertako produktu batzuen dastaketaz lagundurik, hala nola, ardi gazta, lbarako piparrak eta sagardotan hegositako txorixoa.

Banakakoak : 12€

7 urtetatik 12 urtera: 7€

7 urte bainan gutxiagoko haurrak dohainik

Astelehenetik larunbatera: 10h-12h-16.30h-18.30h

Igandea: 10h-12h

"Premium Petritegi" Bisita

Sagardoazale eta Euskal gastronomia zaleei zuzenduriko bisita. Zeinean, "Petritegi oinarrizko" bisita gidatuaz gain ohiko Sagardotegi menua dastatu ahal izango den: Sagardotan hegositako txorixoa, makailu tortila, makailu frejituak takoak piperrekin, txuleta ederra, bertako gazta, irasagarra, intxaurrek, "Tolosako teila eta zigarrotxoak" eta sagardoa "TXOTX" etik, zuzenean gure kupeletegiko kupeletatik.

Bisita gidatua + 1 Zbk. menua

Banakakoa: 35€

Haurrentzako menú bereziak "Prezioak kontsultatu"

Astelehenetik larunbatera: 10h-12h-16.30h-18.30h

Igandea: 10h-12h

"Gaueko Petritegi" Bisita (2012ko udan berria!)

Gipuzkoan udako gauak pasatzeko plan berri eta desberdina. Izarren azpian gure sagastietan murgiltzea eta kupeletgia gauz bisitatzea esperientzia berri bat dira zentzumenentzat. Petritegiko bisita kuttunena, isiltasuna eta sagarrondoaren lurrik protagonista diren atmosfera berezi batean...

Kupeletegiko gaueko bisita eta bi sagardo desbirdinen kata itxua.

Sagardoaren Lurraldea



Kale Nagusia 48

20115 Astigarraga

t: 00 34 943 550 575

f: 00 34 943 559 575

info@sagardoarenlurraldea.com

www.sagardoarenlurraldea.com

[RSS Feed](#)

[Twitter](#)

[Facebook](#)

Buscar / Bilatu

Categorías

[Azokak-Ferías](#)

[Besteak-Otros](#)

[Ekitaldiak-Eventos](#)

[Esperientziak-Experiencias](#)

[Formazioa-Formación](#)

[Gastronomia-Gastronomía](#)

[Historia-Historia](#)

[Kultura-Cultura](#)

[Lehiaketak-Concursos](#)

[Museos-Museoak](#)

[Sagarra-Manzana](#)

[Sagastia-Manzanal](#)

[Sidra-Sagardoa](#)

[Sidrerías-Sagardotegiak](#)

[Turismoa-Turismo](#)

Post Recientes



Sagardoaren munduko bitxikeriak: Maria Josefa de Larramendi, gizonen munduko emakume asaldatzailea.



Oiartzungo XXIV. Sagardo Eguna, maiatzaren 25ean.



Etorkizuneko sagardoaren haztegi handia sortu dute Billabonan.



"Petri" sagardoaren kortxo zerbitzaile berria.

Ostirala: 22h – Ekainak 15etik Irailak 15tera
Plaza mugatutak. Aurretiko erreserba beharrezkoa.
Helduak: 10€

Bisita hezitzaileak– Ikasle taldeak

Txikienei zuzendutako bisita. Zuzenean muztioa nola egiten den ikustea. Sagastitik hasi eta tolaareetara prozesu osoa era dibertigarri eta didaktikoan. ("Sagar Zukua" dastatzea barne dago).

7 urtetatik 12 urtetara: 3€
Sagar zukuaren dastaketa.
Aurretiko erreserba beharrezkoa.

Iturria: Petritegi sagardotegia

Tags: astigarraga, bisita gidatuak, degustación de sidra, Petritegi, visitas guiadas

Anterior post

En Oiarzun celebraron el XXIII. Sagardo Eguna. Oiarzunen XXIII. Sagardo Eguna ospatu zuten larunbatean.

Siguiente post

Sagardoetxea participará en la I. Jornada del Guisante en Astigarraga. Sagardoetxeak Astigarragako I. Ilarra Egunaren ospakizunean parte hartuko du.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Astarbe sagardotegiak 450 urte bete ditu.

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurraldea en “Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.

Sagardoaren Lurraldea en Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.

Xabier en **Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.**

Xabier en **“Baserri munduko memoria” sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.**

Goretti en **“Sagastiak loretan” ARGAZKI LEHIAKETA Facebook-en.**